

## Patronala eta polizia eskuz esku aritu dira sindikalismo borrokalariaren aurkako operazioan



Operazio koordinatu batean, Espainiako Poliziak [LAB sindikatuko 6 kide atxilotu ditu Nafarroan](#) -bortz Iruñean eta bertze bat Altsasun-, martxoaren 8an CEN enpresaburuen elkartearen egoitzan eginiko protesta batengatik eta apirilaren 9an Garbiketen greba iragartzeko [ISN enpresako kamioi baten gainera igotzeagatik](#).

LAB sindikatuak salatu du patronala eta polizia elkarlanean aritu direla sindikalismo borrokalariaren aurkako operazio honetan, CEN patronalak eta ISN enpresak eginiko salaketa batzuen harira egin baitituzte atxiloketak.

Lerrok idazterakoan sei atxilotuetako bortz polizien esku jarraitzen zuten, horietako bat (Izaskun Juarez, LABeko Iruñerria-Pirinioak eskualdeko idazkaria) 10:00ak aldera askatu baitute. Oraindik barnean daudenak gaur arratsaldean edo bihar goizean pasatuko omen dira epailearen aitzinean; dirudenez, Fermin Otamendi izanen da epaile hori. Bertze aldetik, Poliziak LABeko abokatuei jakinarazi dienez, polizia operazioa zabalik dago oraindik eta guztira 11 pertsona izanen dira atxilotuak. Horren harira, LABeko bozeramaile Imanol Karrerak Espainiako Gobernu Ordezkaritzari eskatu dio aurreikusita omen dituzten bertze atxiloketa horiek ez egiteko eta deklaratzera notifikazioen bidez deitzeko, “edozein demokrazia homologatutan egiten den gisara”.

LAB sindikatuak gogor eta irmo salatu nahi du Espainiako Poliziak gaur bere aurka egin duen operazioa. Bi protesta ekintza baketsu egiteagatik atxilotu dituzte sei sindikalistak. “Nahikoa zuten notifikazioa judiziala bidaltzea”, adierazi du Karrerak. “Baina, ez. Nahiago izan dute operatibo polizial handia muntatu eta atxiloketak eszenifikatu, Europako edozein bazterretan ohikoak diren protesta ekintzak egiteagatik”. Era berean, LABek gogor salatu nahi du sindikalismo borrokalariaren aurkako operazio honetan patronala eta polizia elkarlanean aritu izana, CEN enpresaburuen elkartearen eta ISN enpresaren salaketei kasu eginez egin baitu Poliziak operazioa, haien artean zerikusirik ez zuten bi protesta ekintza operatibo bakarrean lotuz.

Bertze aldetik, LABek nabarmendu nahi du nola Poliziak jomugan jarri dituen emakumeak protagonista zituen bi ekintza baketsu -atxilotuetako lau emakumeak dira eta bi ekintzetan soldata arrakala salatzen zen-, eta nola Poliziak atxiloketen bortizkeria erabili duen emakume sindikalista horien jarduera sindikala baldintzatzeko eta eragozteko eta, oro har, emakumeen borrokei zilegitasuna kentzeko.

LABen aurkako gaurko errepresioa ez da atxiloketekin bukatu. Izan ere, goizeko hamarrak aldera dozenaka herritar bildu dira Espainiako Poliziak Iruñean duen komisariaren inguruetara, atxilotuei bertatik bertara elkartasuna adierazteko, eta poliziek horietako hogeit hamar identifikatu dituzte, “elkarretaratze ilegal batean parte hartzeagatik” isuna jarri ahal izateko. Imanol Karrera bera identifikatu dute -eta, beraz, isuna jarriko-, hedabideei adierazpenak egin eta gero.

**Larunbatean, manifestazioa Iruñean**

LAB sindikatuak hainbat ekimen abiatuko ditu sindikalismoaren aurka eginiko gehiegikeria hau salatzeko eta borroka sindikalaren beharra azpimarratzeko. Horien artean, eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzak debekatzen ez baditu, asmoa du bihar goizean elkarretaratzea egiteko Iruñeko (in)Justizia Jauregiaren parean eta larunbat arratsaldean manifestazioa egiteko; manifestazioa 17:00etan aterako litzateke, Iruñeko Baluarte plazatik.

**BORROKA SINDIKALA**  
**AURRERA**  
**EL SINDICALISMO COMBATIVO NO ES DELITO**  
**APIRILAK 24 ABRIL**  
**17:00 · BALUARTE · IRUÑEA**  
**MANIFESTAZIOA**

**LAB**

